

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IEKORAKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko ekitaldiko erroldak

Egin direlarik lekorako udalerriko hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko erroldak, bat etorri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauak 21.2 artikuluan xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen dira, udal honen idazkaritzan, hamabost egun baliodunetz, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak, oharrak edo eragozpenak aurkezteko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

lekora, 2024ko apirilaren 18a

*Alkatea*

*ALFREDO ARGUIJO ECHAZARRETA*